

Ezpalak

JON TORNER

Alberto Iglesias musikari donostiarra Urrezko Globoak jasotzeko izendatu dute, *The Kite Runner* filmerako sortu zuen soinu bandarengatik. Urrezko Globoak banatzeko gala urtarrilaren 13an egingo da Los Angelesen (AEB).

Ur antzerki konpainiak Shakespeareren *Dos caballeros de Verona* (*Veronako bi zaldun*) obra estreinatuko du Bilboko Arriaga antzokian urtarrilaren 19an eta 20an, taldearen 20. urteurrenean.

Roberto Botija bilbotarraren argazkiak jarri dituzte ikusgai Gasteizko Ignacio Aldecoa kultur etxean. *Paisaiak bazterrean* izeneko erakusketa urtarrilaren 28a arte izango da zabalik.



Iñigo Alberdi Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarteko (AEOS) lehendakariorde izendatu dute. Alberdi Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendaria da gaur egun. AEOSek 27 orkestra profesional eta bi gazte orkestra batzen ditu bere baitan eta Felix Palomero Galiziako Orkestra Sinfonikoko zuzendaria du lehendakari.

Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek Donostiako Txotxongillo Taldea sortu zutela 36 urte bete dira. Urteurrena ospatzeko *33 + 3 urte kontu kontari* (Erein) liburua argitaratu dute. Ipuinen bitartez, etxeko txikienek behin eta berriz egiten dituzten galderei erantzuna ematen ahalegindu dira. Genuak eta Gomezek galdera hauei erantzuna emateko hainbat lagun eta artisten laguntza izan dute.

Uxue Alberdik irabazi du Errenteria Hiria ipuin lehiaketa, *Zintzilik* lanarekin. Bestalde, Julene Azpeitia ipuin lehiaketan Mikel Zubeldia izan da nagusi, *Zorionak niri* lanari esker.

Luis Duranek *Aljebra* komiki liburua argitaratu du Bergarako Millaka argitaletxearekin. Oñatiarrak euskaraz argitaratzen duen lehenengo lan hau Antxon Ugartek euskaratu du.

Jorge Oteizaren jaiotzaren mendeurrena

Jorge Oteiza artistaren jaiotzaren mendeurrena dela eta, hainbat ekimen antolatu ditu 2008rako Altzuzako Oteiza museoak. Bi ekimen nabarmendu daitezke: batetik, ekainean klarioneko laborategiari buruzko erakusketa izango da ikusgai. Bi mila pieza inguruko multzoak osatuko du proiektua (argazkian); bestetik, urriaren 21etik 24ra bitartean artistaren inguruko nazioarteko lehenengo kongresua egingo da, *Jorge Oteiza eta bere garaia* izenburupean. Halaber, bi liburu argitaratu ditu museoak: *Gogo jardunak tunel batean* eta *Eskultura dinamikoa*.



Komikigileei zuzendutako beka eskainiko du Bilboko Alondegiak

BILBOKO ALONDEGIAREN beka jasoko duen autore gazteak urtebete egingo du Angulemako (Frantzia) La Maison des Auters zentroan, Europako komiki eskola ospetsuenean. Max marrazkilari ezaguna buru izango duen epaimahaiak 2008ko maiatzean edo ekainean ezaugaraziko du irabazlearen izena (www.alhondigabilbao.com).

Felipe Juaristi idazleak *Berrian*: «Uste dut euskal literatura momentu honetan urrezko momentua bizitzen ari dela. Lau belaunaldi ari gara batera idazten, eta hori ez da sekula gertatu. Nire kezka da zer geratuko den hemendik 20 urtera orain egiten edo idazten ari garen honetatik guztitik. Nire etsipena dator literaturan ez dagoelako erantzunik. Argitaletxe ahaltzuak daude, idazle asko dago, baina irakurleak baditugu? Eta gizarteak onartzen du euskal literatura? Ez ote da euskal literatura sinbolo bat? Benetan sentitzen da? Geure egin dugu? Ez euskaldunok bakarrik, baizik eta erdaldunek onartzen dute euskal literatura? Gizarteak onartzen ez duen bitartean literatura bat, hori baztertua izango da, nahiz eta munduko laguntza guztia eduki».

Katixa Agirre idazleak *Beterriko Liburuan*: «Asko gustatzen zait ipuinen generoa, eta uste dut ez dagoela behar adina baloratuta. Badirudi nobela, ipuinen aldean, funts handiagoa duen zerbait dela. Ipuinak baditu abantaila argi batzuk, bere indar kontzentratua, bere iradokitzeko gaitasuna, metro bidaia batean irakur dezakegula... Eta arrazoi praktikoen barruan, nobela bat idazteko kontzentrazio handiago behar dela uste dudala esango nuke, denbora tarte luzeago batean. Nik ipuin bat buruan badaukat, idazten hasi eta bi edo hiru astetan bukatu dezaket, eta gero ahaztu eta obsesio horrekin bukatu. Baina nobela batekin obsesionatuta egon behar duzu idazten duzun denbora guztian, hau da, agian urtebetean».

Abarrak

JON TORNER

Bakarrik nago, eta salbatu egin nahi zaitut

I Am Legend (Soy Leyenda / Je suis une légende)
AEB, 2007. Zuzendaria: Francis Lawrence.
Aktoreak: Will Smith, Alice Braga, Charlie
Tahan. 103 min.

Robert Neville (Will Smith) zientzialari eta militar estatubatuarra bakarrik dago New York (AEB) hirian. Bera da bizirik dagoen gizaseme bakarra. Birus beldurgarri batek New Yorkeko biztanle gehienak –eta agian mundu osokoak– hil ditu, eta bizirik geratu direnak banpiro bilakatu dira. Neville ezkutuan bizi da; egun argiz soilik ateratzen da kalera, bere txakurra lagun duela, birusak kutsatutako mutanteak lo daudenean. Bi egin-behar nagusi hartu ditu bere gain: bizirik egon daitekeen beste edozein pertsona aurkitzea eta birusa akabatu dezakeen sendagaia deskubritzea.

Egunen joan-etorriak etsigarria behar du izan protagonistarentzat. Ikuslea behintzat hala sentitzen da batzuetan. New York bezalako hiri erraldoia hutsik ikustea nahikoa ez balitz, filmaren erritmo geldoak, elkarrizketarik ezak eta gaueko eszenek etsipen hori are sakonago transmititzen dute. Baina jada esan dugu. Batzuetan lortzen du hori. *I Am Legend* aspergarri samarra izatera hel daiteke, akziozko eszenek, susto bat edo beste oparitu dezaketen tentsio unek, Bob Marleyri egindako omenalditxoak –Nevilleren talde kuttunena da– eta New Yorkeko irudi bitxiak ikuslearen arreta berreskuratzea lortzen duten arren.

I am Legend filma Richard Mathesonek 1954an idatzitako izen bereko eleberrira du oinarri. Egokitzapen libre samarra da, hala ere. Liburuko istorioa 1970eko Los Angeles (AEB) hirian kokaturik dago. Robert Neville da protago-



nista, baina beste Robert Neville bat. Nobelako protagonista lur jota dago, eta alkohola du ihesbide. Ez da ez zientzialari ez militar –birusa nola borrokatu bere kabuz ikasten du–, eta egun argiz banpiroak harrapatzen ditu. Filmeko Robert Neville, berriz, egunez ez ditu banpiroak ehizatzen. Eta *ketchup* potetxoak bai, baina alkoholdun edaririk ez du bere etxean.

Filmak, gainera, salbatzaile moduan aurkezten du protagonista. Heroia da. Giza arrazaren biziraupena bermatzeko bere burua sakrifikatzeko gai da. Nobelak, bestalde, ongiaren eta gaizkiaren inguruko zalantza moralak planteatzen ditu. Protagonistak bizirik irautea du xede, ez 'salbatzaile' bihurtzea. Horregatik, bukaera ere desberdina da bi kasuetan. Paperezko Neville hura banpiroek akabatu zuten. Pantailako Nevillek amaiera duinagoa –*yankee*agoa– du.

Baleko filma, entretenigarria, eta puntu. Sarreragatik 6 eurotik gora ordaindu behar baduzue aurrez ongi pentsatu.



gure!
arteak
euskaraz

